

Paule Lopez Alonso

D maila • Aipamena



Kaixo ni Paule López naiz eta Beasainen bizi naiz. 2005 urteko Abuztuaren 13an jaio nintzen eta 12 urte ditut.

Asko gustatzen zait kirola egitea, bereziki bizikletan ibiltzea eta igeriketa egitea. Asko gustatzen zaidana bidaiatzea ere bada. Elurretan ibiltzea, telebista ikustea, musika entzutea, nire lagunekin jolastea..... Gauza asko benetan!

Txikitatik La Salle eskolan hasi nintzen eta orain DBH1n nabil. Asko gustatzen zait idaztea, baina ez nuen espero horrelako saririk. Ea nire ipuina gustuko duzuen!!

NOR ZARA, HEIMER JAUNA?

Yurdana naiz. Gaur goizeko bederatzieta jeiki naiz. Leihotik begiratu eta baratzean lanean dagoen gizona ikusi dut. "Zertan ari da gizon hori nire baratzean baina?". Leihoa ireki eta gizonari oihu egiten diot:

- Zertan ari zara hemen?

Bat batean, emakume baten ahotsa entzun dut nire atzean:

- Yurdana, zertan zabilta? Raul da, zure anaia. Piperrak landatzen ari da –esaten dit.

- Ezin da nire anaia izan! Nire anaiak ez dauka biboterik eta gizon hori baino askoz ere gazteagoa da.

Besoetatik heldu nau eta ilea emeki laztandu dit. Biak sukaldara joaten gara. Mmmm... kafearen usain sarkor eta gozoa gogoratzen dut. Baina eseri eta mahai gainean dauden gauza gehienak ez ditut ezagutzen. Beirazko pitxer batean dagoen likido zuria usaintzen dut eta ea ezaguna egiten zaidan. Baina ez. Kafea hartu ahal izateko, metalezko "zera" hori hartzen dut, baina ez dakit erabiltzen. Gizon hura, nire baratzean zegoena, atzetik sartzen da. Bi muxu eman eta nire parean esertzen da. Oso deseroso sentitzen naiz. Nahiz eta anaia dudala esan didaten, ez dut antzematen. Kafea azkar edan eta berriro logelara joaten naiz. Nire atzetik andre hura dator berriro ere eta nire logelan sartzen da. Nire bi soineko hartu eta gelatik irteten da.

Logelan ispilu bat ikusten dut. Ispiluan begiratu eta emakume zahar bat ikusten dut. Ilea zuria eta motza dauka. Ilearn gainean zapi urdin bat darama. Azala zimurra dauka eta irribarrerik ez du erakusten. Baxua da eta soineko luze eta beltza darama jantzita. Etxeko zapatilak dauzka jarrita.

- Zer ari da gertatzen? Lehen ez nuen gizona ezagutzen eta orain ispiluaren aurrean beste andre bat ikusten dut. Non daude nire bi mototsak? Non nire loredun soineko zuria? Non daude nire zapatilak? Eta irribarrea?

Ezusteko handia hartzen dut emakume hori ispiluan ikustean eta azkar ohean esertzen naiz.

- Agian lo gehiago egin behar dut. Gaur goizegi esnatu naiz.

Ohean sartzen naiz, baina ez daukat lo egiteko gogorik. Azkenean ohean etzanda geratzea erabaki dut. Lorik egin gabe, ordea.

Halaxe da. Ohean nago, baina ezin dut lorik egin. Bueltak eta bueltak ematen ari naiz ohean. Ezkerrerantz bira egitean mesanotxeko argazkiarekin topo egin dut. Bi heldu eta sei ume. Horretaz gogoratzen naiz. Bi helduak ama Adela eta aita Vicente dira. Oso goxoak ziren eta zintzoak. Asko laguntzen zidaten. Beti prest zeuden laguntzeko. Hori bai, okerkerriren bat egin ezker ere, haserretu ere egiten ziren eta demandan egin ere bai. Sei umeren artean ni ere banago. Senide guztiak gaude: lau neska eta bi mutil. Anaiak Raul eta Tomas ziren. Haiek bai bihurriak! Ahizpak, berriz, Araceli, Margarita eta Arminda. Azkenik ni, Yurdana, guztietan txikiena.

- Aiii, horiek bai oroitzapenak – esaten dut hasperen eginez.

- Zer, Yurdana? Argazkiak ikusten, ala – galdetzen dit andreak.

Baina ez daukat erantzuteko gogorik. Primeran pasatzen ari naiz nire pentsamenduetan murgilduta.

Lotan nago. Edo hori uste dut. Esnatzen naizenean beste logela batean aurkitzen naiz. Logela zuria da. Oso handia. Inguruan makina asko daude. Makina horietako batek oso soinu arraroa ateratzen du: “pii, pii, pii...” Ez dut atsegin. Belarrietako mina daukat. Nire inguruan jende asko korrika dabil eta ni ohe txuri batean nago etzanda.

- Non nago? Zergatik ari da jendea korrika? – galdetzen dut deseroso.

- Ez da ezer...O-ondo zaude – esaten du andreak urduri.

Gaua da eta ezin dut lorik egin. Begiak itxita dauzkat ea lo hartzen dudan, baina andrea gizon batekin ari da hitz egiten. Uste dute lotan nagoela.

- Ze mina ematen didan Yurdana horrela ikusteak – esaten dio andreak.

- Bai...Sendagileek esan dute sei hilabeteetan ez duela ezer gogoratuko – erantzuten dio gizonak.

“Sendagileak? Zer da hori?”, galdetzen diot neure buruari.

- Ba al dakizue nola deitzen den bere gaixotasuna – berriro ere andreak.

- Bai. ALZHEIMER - gizonak.

- ALZHEIMER madarikatua – gehitzen du andreak.

“ALZHEIMER”? Galdetzen diot berriro ere neure buruari.